

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Kanalen bidez bezeroekin harremanak eraikitzen ditugu, eta hauek bost fase nagusitan banatzen dira: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa. Gure enpresan, komunikazio, banaketa eta salmenta-kanalak modu integratuan diseinatu ditugu, bezeroaren esperientzia errazteko eta haien beharrak asetzeko.

Komunikazio-kanalak

Bezeroek gure enpresarekin harremanetan jartzeko eta gure produktuei buruzko informazioa jasotzeko honako komunikazio-bideak ditugu:

- **Webgunea:** Bezeroei gure produktuaren xehetasun guztiak eskaini eta haiekin elkarreragiteko prestatuta dago. Gainera, salmenta-kanal gisa ere baliagarri izango da, gure produktua online erosteko aukera emanez.
- **Sare sozialak:** Publizitatea eta bezeroekin elkarreragina sare sozialen bidez egiten dugu, hala nola Instagram eta TikTok (erabiltzailea: @j.alai_mendi) plataformetan. Sare horiek ikus-entzunezko eduki erakargiak partekatzeko aukera ematen digute, bideo eta argazkien bidez. Halaber, inkestak eta elkarrizketen bidez bezeroek gurekin modu aktiboan parte har dezakete.

Banaketa eta salmenta kanalak

Gure produktua publikoarengana iristeko erabiliko ditugun bideak hauek dira:

- **Azoka:** 2025ko urtarrilak 28an Arabako FERIA ospatzen da Gasteizen. Bertan, beste lankide batzuekin batera gure produktua ezagutzera emateko eta bertatik bertara aurkezteko aukera ematen digute. Azoka horretan gure lehen bezeroak eskuratzea espero dugu; eta horrez gain, harreman berriak eraikitzea gure produktua Gasteizko hiritarren artean ezagutzera eramateko. Azoka-esperientziak bezeroarekin harreman zuzenagoa eta pertsonalizatua izateko aukera ematen digu.

- **Online plataforma:** webgunearen bidez gure produktua erraz eskuratu ahal izango dute bezeroek edozein lekutatik, jasangarritasun eta eraginkortasun irizpideak errespetatuz. Azpimarratu behar da erosketak modu seguru eta erosoan egin ahalko direla.
- **CIFP Mendizabala LHII:** gure institutua ideiarene sorkuntza gunea da, laguntza gehiengoaren sedea eta banaketa aukera aparta ere bai. Kit kopuru txiki bat zentroan salgai izan dezakegu. Jende gehiago ezagutzen gaituzten lekua da eta hasieratik bolondresen laguntza eskatu dugun lekua.

